



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2017ko MARTXOAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2017ko martxoaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Xabier Mugika Letamendia  
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Onintza Gorostidi Murua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2017ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Sarobe baserrian eguzki plakak jartzeko obra baimena eskaera, I.Z.**
5. **Alkizako Udala, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitzea, hala bada.**
6. **Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2017 ekitaldiko hitzarmenaren onespena, hala bada**
7. **Beste batzuk.**
8. **Erregu, galdera eta mozioak.**

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2017ko martxoaren 7ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARRENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

04/2017 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 22koa, "Hezkuntzarako ekipamendu publikoaren lerrokadura, sestra eta bolumenen zehaztea Alkizan" xehetasun-azterketa izapidetzea, ebazten duena.

05/2017 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 22koa, "Hezkuntzarako ekipamendu publikoaren lerrokadura, sestra eta bolumenen zehaztea Alkizan xehetasun-azterketari hasierako onespena ematea", ebazten duena.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EUSKALTEL	74,57
ENEKO ITURBE	387,20
EBA ERKIZIA	1.180,51
BANATZAILEA ELERTZALE	324,85
NATURGAS	3,07
DISTRIBUIDORA GUIPUZCOANA	210,01
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	448,91
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	372,44
GILBE	19,65
TINTA INPRIMATEGIA	348,48
DIONISIO ORMAZABAL	28,69
LYRECO	311,76
GARAJE IBARRA	38,36
IZADI LABORATEGIA	152,94
AISLAMIENTO LIZARTZA	3.212,84
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	2.328,62
GAZTEZULO ALDIZKARIA	22,00
BELAKO	30,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

MOVISTAR	81,31
AUDAX	455,13
SOLRED	92,61
ARGITU	142,59
AUDAX	508,24
NATURGAS	272,95
NATURGAS	82,03
NATURGAS	175,44
NEAR	98,80
CUBIERTAS PAGOLA	1.319,87

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.723,87** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARRENGO PUNTUA** **SAROB E BASERRIAREN TEILATUAN DAUDEN EGUZKI PLAKAK** **LEGEZTATZEKO BAIMENA ESKAERA, I.Z.**

Ikusirik I.Z. jaunak eginiko eskaera, non Sarobe baserriaren teilatuan dauden eguzki plakak legeztatze baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik maiatzaren 21en Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

#### **“ALKIZAKO SAROB E BASERRIAREN TEILATUAN DAUDEN EGUZKI PLAKAK LEGEZTATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*I.Z.S. jaunak, Sarobe baserriaren teilatuan jarritako eguzki energiako plakak legeztatze baimena eskatzen du, lanen faktura eta argazki bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Sarobe baserriaren ur bero sanitarioko instalazioa hobetzeko, 2,4m<sup>2</sup> azalera duten 3 eguzki plaka jarri dira. Eguzki plaken instalazioaren faktura BEZ-a gabe 4.592,64 €-koa da.*

*Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikularen arabera, egun dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik daudela ulertzen da.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Sarobe baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrin kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.*

*Alkizako araudian ez dira honelako instalazioak debekatzen eta eguzki plakak etxearen instalazioen hobekuntza bat izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- I.Z.S. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Sarobe baserriaren teilatuan jarri dituzten eguzki plaken legeztapen baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

#### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

**ALKIZAKO UDALA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEA, HALA BADA**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak sare bat sortu duela herritarren partaidetzarako politikak sustatzeko helburuarekin. Erakundeak eta herritarren partehartzea sustatu eta aldi berean espazio bat sortu nahi da elkarrekiko ikaskuntza egiteko arlo honetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea eskatzen digu. Atxekimenduak sopsosatuko digu (Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea):

- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho-batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

**LEHENGOA:** Onartzea Alkizako Udala atxikitzea, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari.

**BIGARRENGOA:** Onartzea eta beregain hartzea Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakundearen arduradunei.

### **SEIGARRENGO PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2017 EKITALDIKO HITZA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –ren arteko 2017 urterako Lankidetzaren Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetzaren hitzarmenaren, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzaz hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak biberatzeko. Hitzarmena 2017 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.472,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2017ko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.472,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

## **ZAZPIGARRENGO PUNTUA** **BESTE BATZUK**

### **7.1. 2016-2017 IKASTURTERAKO ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2016-2017 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

## ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2016-2017 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

## **ZORTZIGARRENGO PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## 8.1. “MARTXOAK 21: ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIEN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA-ren ” ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA, HALA BADA

Tolosaldea Garatzen-etik ondorengo adierazpen instituzionala aurkeztu da:

### **“MARTXOAK 21: ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIEN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheidia ezabatzeko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabalduzako mezuak gogorarazten digu *arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da “bestea” erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.*

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduak NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeek laguntza finantzarioaren ezagatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezkek jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta, egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onspen-guneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehentasun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori –lagungarria eta okerra dena aldi berean– laburtzen duen lema bat: ***Needed, but not Welcome!***

**TOLOSALDEKO UDALA,** ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu **konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak –sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste– sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko.** Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere.

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baieztoko demokratiko eta irmo baten bidez, ez daitezzen gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

2. Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.
3. Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

4. Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari.
5. Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.
6. Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko “Martxoak 21: Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko Eguna”-ren adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*